

Berriak

Euskal Literatura

2025



Biblioteca Liburutegia




Itzulerak / Miren Agur Meabe

1569 urtea. Garaitzeta sutan dago. Sugarretatik ihesi hamabost urteko Estefana gaztea Garrax uhartera iritsi da, itsasbeheran. Itasertze berera iritsi dira Miriam Otalora eta Katalin eta Gontzal seme-alabak, Haize-Begi familia-etxera, 450 urte geroago. Elkarri lotuta daude, ordea, euren bizitzan.



Berbelitzen hiztegia / Anjel Lertxundi

Berbelitz, liburuko itzultzaile protagonista, gaztetatik hasi zen beste hizkuntzetako obrak euskarara itzultzen, beste munduak, beste begiradak, beste kulturetako sentiberatasunak euskarara ekartzen. Jakin-gose, apunteak hartzeko ohitura du bere itzultzaile lanaz bezala bere bizitza xumeko gorabeheretz ere. Baina, urteari urte, apunteak pilatzen joan zaizkio, karpetak eta karpetak bete ditu ikusi eta bizi izan duenari buruzko apunteekin, bere baitako hausnarketekin, etxetik kanpora eta kanpotik etxera egindako bi-daia benetakoekin eta mentalekin.



Arrakasta / Jasone Osoro

Arrakasta gaitzat hartuta idatzitako saiakera, gure artean hainbat arlotan arrakasta izan duten gizon-emakumeak elkarriketatu eta haien hitzak zein Osororen beraren gogoeta propioak bilduz osatutakoa. Hauexek dira liburu-ko protagonistak: Jon Garaño, Itziar Ituño, Izaro, Gorka Urbizu, Maider Egues, Harkaitz Cano, Eneko Atxa, Markel Irizar, Aizpea Goenaga, Eva Domingo, Joxemari Agirretxe Porrotx,...



Laudatako mamua / Xabier Montoia

"Mamu bat, piztia bat omen dabil Arabako lautadan barrena. Bertako soro eta herrietan dabil, txima luzeak harrotzen dizkion haizea bezain arin, oinez ez, hegana egingo balu bezala. Hara eta hona dabil odol-egarri, eta sufre hatsa dario, infernuak bidalia delako seinale. Emakumeak korrika etxeratzen dira ilunabarrean, eta ez dute beste konturik aipatzen elizara edota lixiba jotzera biltzen direnean. Emazte infidelak eta neska txolinak eramaten omen ditu, haien bekaturen zigor. Izaturik du Araitatik Gasteizerainoko herrietako jendea. (...) "



Gizon barregarriak / Joxean Agirre

Jubilatu ondoren aspertzen hasita dauden komando ohi bateko kideak atraku bat eta bahiketa bat antzez-tera jolastuko dira, berrogei urte lehenagoko ekintzak gogoratzeko, batetik, eta garai hartan atzetik izan zituzten lehen promozioako ertzainekin sagardotegian apustu bat egin dutelako ere bai. Politika, umorea eta erotismoa nahasten dituen kok-tel gisa funtzionatzen duen nobelak hainbat adar ditu: zahartzaroaren eta maskulinotasunaren gaineko gogoetak, garai bateko ideal eta helburuen zimeltzea, baita gaztetasunaren gorazarrea ere, gizon barrega-rriek adinako protagonismoa baitu Maria Mendizabal Antropologiako ikasle gazte eta distiratsuak, zeina uniformedunen usainei buruzko doktoresia egiten ari den.